

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

literatura

Errebeldian erreferente

Euskal Herriko 50 emakume eta kolektiboren istorioak bildu dituzte **'Errebeldi 50 bider'** liburuan (Erein). Eurengandik espero ez zena egin zuten emakumeen bizitzak ikusarazi dituzte, erreferenteak sortzeko helburuarekin

JONEBATI ZABALA

Historian zehar garrantzitsuak izan diren Euskal Herriko 50 emakume eta kolektiboren istorioak bildu dituzte **Errebeldi 50 bider** liburuan Angela Garcia Mardonesek, Andrea Perales Fernandez de Ganboak eta Maria Orcasitas-Bikandik. Zortzi urteko irakurleei dago zuzenduta liburua, umei ere bai, beraz, eta ilustrazio deigarri lagunduta dator.

"Hezkuntzan hutsunea" zegoela ikusi zuten egileek, eta horixe izan zen proiektuaren abiapuntua. Ohartu ziren liburuetan ez zegoela emakume erreferenterik, eta hainbat esparrutan, burura datozkigun lehenengo izenak gizonenak direla: "baina ez emakumerik ez zegoelako, andreen historia ezkutatzeko asmoa egon delako baizik", diote. Hala, haurrek liburuan irakurritakoaren bidez emakumeen istorioak ezagutuko dituzte eta horiek ere izango dituzte erreferente, ez soilik gizonak. "Bizi garen mendean, gure arloetatik nolabaiteko ekarpena egin nahi genuen eta horrelako proiektu baten bidez emakumeak ikusaraztea modu egokia iruditu zitzaigun", kontatu du Angela Garcia ilustratzaileak. Kasu honetan, Euskal Herrikoak dira liburuko protagonistak. "Erreferenteak andreak eta bertokoak izatea bilatu dugu", adierazi du Garciak.

Euskal Herriko emakumei buruz ikertzen hasi eta "guk ere ezagutzen ez genituen istorioen berri izan dugu", diote liburuarren egileek. Pirata bat,



'Errebeldi 50 bider' liburuarren egileak, lana eskutan dutela. EREIN

matematikaria, kirolariak... Askotariko emakumeen biografiak bildu dituzte. Garaikideak, jada bizirik ez daudenak... baina denak ala denak errebeldiak. "Euren garaian euren-gandik espero zenarekin apurtzen saiatu ziren denak, bakoitza bere mailan". Askotan, emakumei buruzko bildumak egiten direnean, profil ilustratuak baino ez direla agertzen diote egileek, baina eurek apalenak ere jaso dituzte, "guztiak baitira garrantzitsuak", egileen esanetan.

Horrez gain, kolektiboak ere jasotzen ditu liburua. Etxeko andreak, base-ritarrak zein arraunlariak ere ikusarazi nahi izan dituzte, besteak beste. "Personalizatzeak zentzurik ez zuela iruditzen zitzaigun eta liburuan

mota horietako kolektiboek ere tokia izatea beharrezko ikusten genuen, ikusezinetan ikusezinetan baitira".

50 EMAKUMEREN BIZITZAK 50 emakumeak hautatzea ez da prozesu samurra izan, Garciak azaldu duenez. "Bakoitzak zerrenda bat egin genuen, liburuan sartzea gustatuko litzaikekeen andreen izenekin. Gero, komunean jarri eta oreka bat bilatzen saiatu ginen; esaterako, hiruron artean hamar musikari baino gehiago genituenez, gustukoena aukeratu behar izan genituen". Behin protagonistak zehaztuta, Perales eta Orcasitas dokumentazio eta erredakzio lanarekin hasi ziren. "Hasieran, emakume bakoitzaren inguruko testu labur bat idaztea pentsatuta genuen

arren, Maria eta Andreari ez zitzaiezen batere erraza suertatu istorio horien laburpena egitea. Gainera, haurrentzat erakargarria izango zen idazkerare erabili beharra zuten".

Ilustrazioak ontzeko, bildutako informazioa Garciari pasatu zioten idazleek. Honek, erronka bat jarri zion bere buruari: protagonista bakoitza marrazteko estilo ezberdina erabiltzea. "Hainbat emakume sartu ditugu liburuan eta hain ezberdinak dira euren artean... Ilustrazioek indar handia dute lan honetan eta hori helarazi nahi izan dut teknika antzenez bidez. Gainera, nire estilotik ateratzeak ikasteko aukera polita eman dit eta aberasgarria izan da ilustratzaile gisa ere", kontatu du Garciak.

Egileak "harritu" zein "markatu" egin dituzte zenbait istoriok. Edozein aukerara aprobetxatzen baitzuten euren helburuak lortzeko, "eguneroko iraultza eginez". Garciak Anarrena aipatu du, bere musika eta hitzen bitartez "asko transmititzen" duela deritza. Bestalde, aurretik ezagutzen ez zituen emakumeak ere deskubritu ditu proiektu honi esker. "Ernestina de Chantourcin poeta gasteiztarra marraztea asko gustatu zitzaidan", kontatu du.

Lehen liburu hau argitaratuta, egileek aitortu dute hainbat izen geratu zaizkiela kanpoan eta horiekin bigarren ale bat prestatzeko irrikaz daudela. "Euskal Herrian beste emakume errebeldi askoren istorioak daude oraindik jasotzeko, eta proposamenak ere egin dizkigute liburuarren aurkezpenetan".

Guiztiak errebeldi

Ainhoa Arteta
Ana Diez
Anari
Asun Batzola
Betzabe Mugel
Cecilia G. de Cuillarte
Dolores Ibaruri
Edume Pasaban
Elena Ochozola
Elbira Zipitria
Ernestina de Chantourcin
Josune Bereziartu
Josepha de Landaburu
Josune Bereziartu
J. Antoni Aranberri 'Xenpelar'
Juana Larando
Juana Ines de Asbaje
Julene Azpitia
Julia Alvarez Resano
Kasilda Hernaez Vargas
Katalina Eleizgi Maiz
Kattalin Agirre
Lucia Locarra
Luz Zalduegi
Maialen Lujanbio
Maider Unda
Mizan Arbelbide
Manuela de Ezquerro y Saenz de Etxebarri
Maria de Maeztu
Maria Coiri
Mariasun Landa
Marie Coulum eta Lisette Aboada
Marga D'Andurain
Marta Macho Stadler
Martina Ibaibarriaga
Nicolasa Pradera
Patxi Espinor
Polixene Trabudua
Sofia Candarias
Sortxunde Rubio
Teresa de Furundarena
Toti Martinez de Lezea
Kantauri itasoko amaunlariek
Portuko zirgariak
Raketistak
Etxekoandreak
Emakume landatarrak

Zugatik egiten duzu.
Planetagatik egiten duzu.

Elkarrekin zaintzen
dugu ingurumena.



ADOP
Asociación de Organizaciones
de Educación y Participación
Ambiental

Nazioarteko erreferentea klima-aldaketaren aurkako borrokan.
Munduko liderra energia berriztagarrian.



IBERDROLA